


«Zuek ez dakizue 24 orduz zaratarik gabe egoitea zer den. Zuek guztiok kolonizatuak zaudete. Ez dakizue Lur-Amarekin bizitzea zer den»

«Ekintza iraultzaile baskarra, norberaren gaintasunaren aldeko ekintza da»



Dodd Hall-era joan naiz, U.C.L.A.-ko Ekialdeko batimendura. Ikasgela arrunt batetan, 20 bat entzule. Ez gehiago, ez; nahiz U.C.L.A.-n 35.000 ikasle egon. Aurpegi beltzaranak denak, indio nabarmenak denak (ni barne!). Gazte pare batek, Bjorn Borg tenislari ezagunaren antzera, halako zapi

bat buruan, ile beltzaren euskarri. American «zuri»rik bat ere ez...

Bapatean, zabalik zegoen atletik, gizaseme altu bat sartu da gelara: «Russell Means» da, «Sioux» beldur-garrien buruzagia. Eta isiltasun osoa sortu da gure artean. Egia aitortzeko: inork ez dit zirrara handia-

beren lurralde l

SIOUX-E BURUZAGI MINTZO

Kalifornia-ko zero urdina Maiatzaren bukaeran; eta epe gusitzen. Eguerdietan 95°F Lotean ere, U.C.L.A. famatuan.

«American week» iragarri zuten egunkaritzoak. Maiatzaren 26an diar buruzagi batek mintzatu be-



gorik sortu, inor ez dut ezagutu aginte-magnetismo delakoaz nabarmenkiago horniturik.

— «My name is not really «Russell Means», but Oyate Wacinyapi.» Ingelesez normalez mintzo zaigu; nahiz bere ama- hizkuntza, Sioux-en hizkuntza izan: «xux-páyut», ulertu

AREKIN

ago agertzen zen jazko-
uri, beroa hasi zitzaion na-
eles zabalean. Unibertsita-
deliberatuki itzal bila.

«The Bruins» unibertsitate-
n Russel Means delako in-
uen.

TXILLARDEGI




diodanez; «Lakota-Nazioaren hiz-
kuntza», «my nation». «Sioux»
izena, azaldu duenez, «zuriek» jarri
zieten; baina berek «lakota»tzat dau-
kate beren burua.

Oyate Wacinyapi zein adinetako
gizona den ezin esan. Alabaren berri
eman duelarik, 45 edo 50 urte kal-

«Oraingoz 1800 akre
—450 hektarea— liberatu
ditugu. Eta han elkar-
lanean bizi gara, inork
ekonomi-askatasunik ez
duelarik»


«1868-an izenpetu zen
Ituna, handik bederatzit-
urtetara hautsi zuten zu-
riek; gure lurraldeetan
urrea agertu bait zen».



kula dakizkioke. Itxuraz, dena dela,
30 ere eman lekizkioke; gizon azka-
rra eta gogorra baitirudi. Ile beltza
du, larrua guztiz beltzarana. Aurpe-
giaren bi alderdietan, ia gerriraino
behera, bi txerlo luze; eta hauekin
batera, belarrietan, bi zintzilikario
nabarmen. Txaketa berde-berdea,
orban gorritz nabartua.

«EZ GAITUZTE BERRIZ MOGI- TUKO»

— «Close the dorr», agindu du
ezin ermukiago. Eta segituan hetsi
da atea. Haren begirada sarkorrek
ez du zalantza-biderik uzten... Biha-
ramunean, Maiatzaren 27-an, be-
rriro entzun nuen Los Angeles-ko



«Casa de Nicaragua» delakoan, sandinisten biltoki gaur; baita buruz buru hitz egiteko aukera izan. Oyate-k, bidenabar esateko, oso iritzi ona du euskaldunez, eta gure berri badaki: «Ez zarete frantsesak, eta ez espaiolak. Badakit», bota dit haseran.

Baina itzul gaitezen Dodd Hall—era:

— «Nire eskualdea da munduan dagoen aberatsena» —hasi da esaten— «eta honetxek ekarri dizkigu arazoak». «It is the richest 100.000 miles on earth». «Eta honetxek galdu gaitu. 1868—an izenpetu zen Ituna, handik bederlatzi urtetara hautsi zuten zuriak; gure lurraldeetan urrea agertu baitzen. Geroztik okerrago jarri dira gauzak, uranioa ere azaldu delako. Berririo mogitu nahi gaituzte. Baina ez da lekuz aldatzerik izango. Hori ez. Gerbai, beharbada. Ez gara mogituko. 1868—akordioa bete dezatela eskatzen dugu. Besterik ez».

Oyate Wacinyapi, Wounded Knee famatuan egon zen 1973—an. Komaraino torturatua izan da, eta hiru aldiz tirokatua.

— «Ni bakarrik ez, ordea. 1968—1982 honetan, 200 lakotak ezagutu dute gartzela, eta 667—k heriotza. Hots, Lakota—Nazioak gaur 70.000 biztanle baizik ez du. Zampaketa, beraz, gaitza da. Eta inork ez du gure alde hitzik atera. Sandinistak berak, indio izanik ere (sandinis-

tak indioak baitira goitik behera), isildu egin dira. Are «mezquito»en kontra jokatu ere. Horixe da gure gaitza: indioak berak lotsatzen dira beren indiotasunaz; eta ez USA—ren barruan bakarrik».

«INDIOA EZ DU INORK KONPRENITZEN»

Oyatek, Castro—ren aldekoa hasitapenetan, La Habana—ra bidali zuen alaba; baina han ere indioen kontrako arrazakeria bera aurkitu omen du:

— «Indioak jende atzeratua garella esaten dute han, arkaikoak garella, edaten dugula, geure burua hiltzen dugula. Marx—en bidetik, gu industri—zibilizazioan sartzeko eskubidea dutela uste dute. Hots, industriaren zibilizazioak, marxista ala kapitalista, zampaketa eta zoritxarra hedatu ditu non—nahi; eta irtenbiderik ez du. Ezkerreko ekologisten kakoa horretan datza. Guk, oraindik, Castro eta sandinistak onartzen ditugu; baina indiar problema ez dutela ulertzen salatzen dugu. Oraindik ez dute ulertu egia funtsezko hau: **«the only revolutionary act is the act for self—sufficiency»**; ekintza iraultzaile bakarra, norberaren gaintasunaren aldeko ekintza da. Hots, bi soluzio baizik ez dira proposatzen: industri—gintzarena, eta naturaltasunarena. Lehenengoak zoritxarra ekarri du, eta Lurra, «gure Ama»ren hondamendia. Bigarrenak, berriz, egiturarik eta aparatorik gabeko askata-





suna. Indioei modelo hau kendu nahi izatea, sarraskia baizik ez da.»Sioux-tarrek bere eskualdeen «okupazioa» hasi dute 1981-ko Apirilaren 4-an. Haseran 50 bat lagun bildu ziren kanpamentora:

— «Oraingoz 1800 akre liberatu ditugu» —450 hektara, gutxi gora behera—. «Eta han elkar-lanean bizi gara, inork ekōnomi-askatasunik ez duelarik. «Yellow Thunder Camp» bataiatu dugu geure herri berria, dendaz osatua: 1972-an Nebraska bi zurik hil zuten R. Yellow Thunder gure herrikidearen oroitzapenetan. Eta piskanaka, iskilurik gabe, hona etorriko gara denok; guretzat Paha Sapa eskualdea, sakratua baita; zuentzat Jerusalem bezala. Eta ez gara indarrez ere joango. Bertan hilko gara, beharrezkoa baldin bada».

«LUR-AMARENGANA ITZULI»

Oyate-ren ustez mendebaldeko gizona bakardadeari eta isiltasunari beldur zaie. India ez.

— «Gure eskualdean ez dago telebistarik, eta ez da izango. Eta zuek beldurtu egiten zarete. Zuek ez dakizue 24 orduz zaratarik gabe egotea zer den: you have to think 24 ours a day ... Zuek guztiok kolonizatuta zaudete. Ez dakizue Lur-Ama-rekin bizitzea zer den».

Eta «Mother Earth» esatean, piztu bezalà egiten da.

— «Freedom is amazing ... gauza bakar bat egin dezakezu Yellow-

Thunder-en: pentsatzea, edo-ta noizean behin paseo bat egitea».

Lakabe-ko Elkartea datorrit burura, jakina, hau guztia idaztean. Zer dira Yellow-Thunder eta Lakabe: joandakoaren azkeneko oihartzuna, ala gerokoaren lehenengo zantzua?

— «Etsaia industrigintza da», ekin du Oyatek. «Industrigintzak urrundu gaitu naturaltasunetik gero eta areago. Guk ez dugu industrigintzarik nahi. The community comes first. Elkartasunik gabe eraiki nahi den aurrerapena zoritxar-iturria da bakarrik. Zuek oso aldatu omen zarete, eta oso harro zaudete horretaz. Baina, hain zuzen, horixe da seinalerik txarrena.»

Eta, ingelesez:

— «Happy people don't change.» Herri zoriontsuak ez dira aldatzen.

Anti-nuklearra aitorturik ere, izenaren desegokitasuna aipatu digu:

— «Mogimendua ez da anti-nuklearra. Lur-Ama-ren aldeko mogimendua baizik».

Haien berri jakin nahi izanez gero, zuzenbide honetara idazteko esan zidan: Dakota AIM Information Dept. —Box 70— Porcupine, South Dakota 57772 - USA.

Badaki irakurleak, beraz.

Niri behintzat Oyate Wacinyapi-ren ezaguerak sekulako astindua eman zidala ez dut ukatuko.